

Nerea Urteaga Riaño

B maila • 1 saria

Nerea Urteaga naiz, 15 urteko neska beasaindarra. La Salle San José ikastetxean nabil DBHko 3. maila jarduten. Marraztea dut pasio, eta irakurtzea ikaragarri gustatzen zait; pertsonaia bakoitza nigan sentitzea.

Ez da lehiaketa honetan lortzen dudan lehen saria, baina bai olerki atalean. Ohore bat izateaz gain, erronka handi bat izan da.

Besterik gabe, zuen gustukoa izatea espero dut!



ISILPEKO DESIOA

Gupidarik gabe epaitzen gaituztenean
krudelkeriak gure norabidea aldatzen duenean
eta amildegiaren hertzean jartzen gaituenean
orduan ikusezinak gara
ZU eta NI

KU
LUN
KAN

Hatz hotzez seinalatzen gaituztenean
musu beroa isilpean gordetzen dugunean
eta gure desirak eta asmoak hozkatzen
dituztenean
orduan txorimaloak gara
ZU eta NI

ZIN
TZI
LIK

Bakardadera kondenatzen gaituztenean
sekretupean bizitzen ikasten dugunean
eta nahigabea geraezina denean
orduan zoroak gara
ZU eta NI

NA

HA

SI

Baina begirada hutsekin uzkuertzen garenean
beldurra lastan amultsuen artean galtzen
denean
eta desio ilunen gose garenean
orduan, maitea,

ASKE

gara

GU